

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**76/2020 Foru Agindua, maiatzaren 12koa. Amaitutzat jotzea eskola kiroleko programaren 2019-2020 kanpaina Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzat eta irabazteko xederik gabeko erakundeentzat, eta baliorik gabe uztea 185/2019 Foru Aginduaren III. eranskinen xedatutakoari jarraituz emandako baimenak eta 186/2019 Foru Aginduaren VII. eranskina, zeinaren bidez arautzen baita eskola kiroleko programaren barruan ez dauden kirol jarduerak antolatzeko baimenak emateko prozedura**

Ekainaren 12ko 185/2019 eta 186/2019 foru aginduen bidez, onespena eman zitzaien, hurrenez hurren, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako eta irabazteko xederik gabeko erakundeentzako eskola kiroleko programei, eta haiek arautzen dituen arauei 2019-2020 kanpainarako.

Gainera, 185/2019 Foru Arauaren III. eranskinaren eta 186/2019 Foru Arauaren VII. eranskinaren bidez, eskola kiroleko programan sartzen ez diren kirol jarduerak antolatzeko baimenak arautzen dira.

Eusko Jaurlaritzak eta osasun asgintariak hainbat neurri hartu dituzte COVID-19ari aurre egiteko, hala nola eskolak etetea ikastetxe guztietan. Halaber, nola ezinezkoa den segurtatzea modu unibertsal eta homogeenan parte hartu ahal izango dela eskola kirolean eta kirol federatuan, Arabako Foru Aldundia koherentea izan behar da osasun prebentzioko neurri horiekin. Ondorioz, 2020ko martxoaren 9an, Kirol Zuzendaritzaren abisuaren bidez, aldi batez eten ziren eskola kiroleko jarduerak. 2020ko martxoaren 13an, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak abisatu zuen eten egingo zela Arabako Lurralde Historikoko jarduera federatua. 2020ko martxoaren 23an, berriz ere Kirol Zuzendaritzak abisatuta, "sine die" luzatu zen eskola kirolaren jardueren etenaldia.

Eskola kiroleko programa, ikastetxeetako hezkuntza eskaintzari erantsita, aisialdiko jardura garrantzitsua da Araban. Han, Arabako Foru Aldundiak ezezik toki erakundeek, ikastetxeek, federazioek eta klubek ere parte hartzen dute, eta 40 kirol modalitate inguru eskaintzen dira. Haietan, Arabako 22.000 eskola ume inguruk parte hartzen dute.

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez, behin hiru aldundiei kontsultatu ondoren, bertan behera gelditu dira behin betiko maiatz bukaeratik ekain hasierara Araban egin behar ziren Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak.

Horiek horrela, adingabeen osasunaren eta segurtasunaren gutxieneko nahitaezkoa ez dago segurtatuta, ikasturte honi dagokionez. 2020ko maiatzaren 11n, astelehenean, deseskalatzearen 1 fasea hasten den egunean, Hezkuntza Sailak aurreikusita dauka ikasleak geletara itzultzea maiatzaren 18an edo 25ean, neurri zorrotzekin eta tutoretza sanitarioaren pean, baina DBHko 4. mailako, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleak bakarrik. Kontuan izanik eskola kirola 6 eta 16 urte bitartekoei dagokiela eta ikasgeletarako itzulerak DBHko 4. mailako ikasleei bakarrik eragingo diela, gaur egungo osasun egoera ikusita gomendagarria da bi neurri hauek hartzea:

- Amaitutzat jotzea eskola kiroleko programaren 2019-2020 kanpaina, zeina onetsi baitzen ekainaren 12ko 185/2019 eta 186/2019 foru aginduen bidez.
- Baliorik gabe uztea 185/2019 eta 186/2019 foru aginduen III. eta VII. eranskinen bidez ekainaren 30era arte onetsitako baimenak.

Kirol Zerbitzuaren buruak emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Amaitutzat jotzea eskola kiroleko programaren 2019-2020 kanpaina Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzat eta irabazteko xederik gabeko erakundeentzat. Programa horiek ekainaren 12ko 185/2019 eta 186/2019 foru aginduen bidez, hurrenez hurren, onetsi ziren.

Bigarrena. Baliorik gabe uztea Kirol zuzendariaren ebazpen baten bidez 2020ko ekainaren 14ra arte onetsitako baimenak, 185/2019 eta 186/2019 foru aginduen III. eta VII. eranskinetan ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena. Ebazpen hau eskola kiroleko programaren parte hartzaile eta laguntzaile guztiei helaraztea eta komunikabideei jakinaraztea.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Edonola ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, epe hori etenda gelditzen da harik eta alarma egoera altxatu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 12a

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*

*ANA M. DEL VAL SANCHO*

*Kirol zuzendaria*

*PABLO DE ORAÁ OLEAGA*